

ABBADIEKO GAZTELUA – DONIBANE LOHIZUNE – HONDARRIBIA

2019ko otsailaren 21eko irteera kulturean ohi baino parte hartzaile gehiago izan ziren; hori dela eta, 59 eserlekuko autobus bat kontratatu ahal izan genuen.

Garaiz irten ginen Gipuzkoako plazatik Abbadieko Gaztelurako bidean (Hendaian). Bisita gidatua egiteko 30 lagun onartzen dira gehienera ere Gazteluan; beraz, bi taldetan banatu, eta gaztelu barruko ibilbideari ekin genion, 15 minutuko aldearekin.

Antoine d'Abbadie esploratzaile, geografo, numismatiko eta astronomo frantsesaren irudiari buruz hitz egin ziguten. Ospetsuak izan ziren hark XIX. mendearen lehenengo erdialdean Etiopiarra egindako bidaiak. Euskal kulturaren bultzatzaile nabarmena izan zen halaber. Zientzien Akademia da Abbadieko Gazteluaren jabe, hari utzi baitzion Antoine d'Abbadiek 1895ean, eta gaur egun Hendaiaiko udala da haren administratzailea. Ederra bai kanpotik bai barrutik.

Gaztelutik atera ondoren, Donibane Lohizunera abiatu ginen, eta han, Ramón Leturiondoren laguntzarekin, ibilbide bat egin genuen: elizaren barrualdea, etxe ederreko hainbat kale, eta hondartza ondotik, itsas pasealekutik ikusten dira nola altxatu diren badian eraikitako pasealekua eta dikea, itsasoaren erasoak saihesteko helburuarekin.

Bazkaria Hondarribiko Batzoki jatetxean egin zen, kalitate-prezio harreman oso onarekin.

Arratsaldean, ibilbidea Hondarribiko Alderdi Zaharrean barrena. Bertan Ramonek herriko arkitektureari, arteari eta historiari buruzko eskolarekin jarraitu zuen.

Eguraldia izugarri ona izan zen jardunaldi osoan zehar, eguzkiarekin eta haizearekin, eta gozamen handia izan genuen horri esker irteera osoan; parte hartzaileek programa oso interesgarriaz gozatu genuen.

19,15ean iritsi ginen Donostiara.